

e-pamiela hitza



e-pamiela hitza:

Azaroa 2009

Diseinua:

Gurutz Cilveti, Mikel Santakiteria
http://www.kooperatiba.com/

Azalaren diseinua

Mikel Santakiteria
http://www.kooperatiba.com/

PDF hau orrialde bikoitzean edo bakarrean ikusi daiteke.

Liburu baten inguruan informazio gehiago behar baduzu edo argitaletxearekin harremanetan jarri, 3.orrialdeko datuak kontsultatu.

Este PDF se puede visualizar a doble página o a una sola página.

Si necesita más información sobre un libro o ponerse en contacto con la editorial o sus autores, consulte los datos de contacto en la página tres.

Pamiela

Agustindarren industrialdea •
Soltxate. G kalea, B6 nabea
Iruñea - Nafarroa
31013

E-posta: soltxate@pamiela.com
http://www.pamiela.com
Bloga: www.pamiela.com/bloga

Telefonoa: +(34) 948 326 535
Faxa: +(34) 948 326 602



Distribuidores

ELKAR BANAKETA
C/ Portuetxe, 88
20018 Donostia-San Sebastián
Telf.: 943310301 Fax: 943314267
jonjaka@elkar.com
www.elkarbanaketa.com

BASKONIA:
Comunidad Foral Navarra
Comunidad Autónoma Vasca
(Araba, Bizkaia, Gipuzkoa)
Departamento Pirineos Atlánticos
(Lapurdi, Nafarroa Behea, Zuberoa)
La Rioja

BITARTE LIBROS, S.L.
Polg. Berriaintz. C/B nave 44
31195 Berriozar
Telf.: 948302239 Fax: 948302708
yoar@bitarte.net
www.bitarte.net

Comunidad Foral Navarra
Comunidad Autónoma Vasca
(Araba, Bizkaia, Gipuzkoa)
Departamento Pirineos Atlánticos
(Lapurdi, Nafarroa Behea, Zuberoa)
La Rioja

EGARTORRE, S.L.
C/ Primavera, 31. Polg. Ind. El Malvar
28500 Arganda del Rey (Madrid)
Telf.: 918729390 Fax: 918719399
egartorre@egartorre.com
www.egartorre.com

Zona Centro (Madrid, Toledo, Ciudad Real, Cuenca, Guadalajara, Segovia)

BESAI LLIBRES, S.L.
C/ Piquer, 53
08004 Barcelona
Telf.: 934425446 Fax: 934419436
besai@besaillibres.com

Catalunya
(Barcelona, Girona, Tarragona, Lleida)

MARTIN FIERRO LIBROS, S.L.
Pol. Atalayas C/ de la Libra, 113
03114 Alicante/Alacant
Telf.: 965289802 Fax: 965281907
mfierro@enlanet.com

Levante (Castelló, Valencia, Alacant)

ICARO DISTRIBUCIONES
Polígono El Plano, C/A, nave 39.
50430 María de Huerva (Zaragoza)
Telf.: 976126333 Fax: 976126493
icaro@icaro.es

Aragón (Huesca, Zaragoza, Teruel)

AZETA LIBROS Y PAPELERÍA, S.L.
Camino Bajo, s/n
18100 Armilla (Granada)
Telf.: 958552029 Fax: 958571556
zocalo@zocalolibros.es

Andalucía Oriental
(Granada, Málaga, Jaen, Almería)

GRACIA ÁLVAREZ DISTRIBUCIONES
Polígono Pisa
C/ Artesanía, 21 nave 12
41927 Mairena de Aljarafe (Sevilla)
Telf.: 954184329 Fax: 954185274
paco@graciaalvarez.com

Andalucía Occidental
(Sevilla, Córdoba, Huelva, Cádiz)

BABEL LIBROS
Polígono San Cristóbal
C/ Magnesio, 24
47012 Valladolid
Telf.: 983209773 Fax: 983203349
info@babellibros.com

Castilla-León (Valladolid, León, Palencia, Zamota, Burgos, Soria)

LÓPEZ CABALLERO LIBROS
C/Pino, 121
36206 Vigo
Telf.: 986379154 Fax: 986379154
benjaminlopez50@hotmail.com

Galiza
(A Coruña, Pontevedra, Lugo, Ourense)

ALEJANDRÍA DISTRIBUCIÓN BIBLIOGRÁFICA
Av. Universidad 1953 – Edif. 22 –Local 3
Col. Colpico Universidad
04340 México D.F.
Telf.: 52- 55 56161319
Fax: 52 - 55 56163172
alejandria@alejandrialibros.com.mx

México

Far Westeko Euskal Herria

Asun Garikano Iruretagoiena



Salneurria: 24,00 €
ISBN: 978-84-7681-601-1
Saio eta Testigantza 104
Hizkuntza Euskara
2009. urtea
432 or.

Ameriketako Mendebalde Urruneko paisaia, pioneroak eta urre-bilatzaileak, saloon-ak eta diligentziak, ganadu garraiatzaileak, artzainen eta abeltzainen arteko liskarrak, indioak, *cowboy* harroxkoak eta hiltzaile kontratatuak... Azken batean, Far West zaharraren historia, baina oraingo honetan ez Hollywooden bertsioan, baizik eta han ibili ziren eta herrialde hura altxatzen lagundu zuten euskaldunek kontatua.

Aldi berean, euskaldunak emigratzaile izan ziren garaiko kontuak. Aspaldi ez dela, milaka gazte euskaldunek utzi zuten beren etxea. Askok ilegal izatearen drama bizi izan zuten, hizkuntza eta ohiturak ez jakiteagatik arlote sentitu ziren. Zorionez, hala ere, beren sarea eraikitzen jakin zuten eta, horri esker, gizarte berrian errazago integratzeaz gain, jaioterrira lotzen zituen hariak tinko iraun zuen.

Asun Garikano Iruretagoiena (Tolosa, 1962)

Euskal Filologian lizentziatua. Gasteizko IRALEn irakaslea eta literatura-itzultzailea. Honako itzulpenak egin ditu, besteak beste: ingelesetik euskarara R. L. Stevensonen *Altxor Uhartea* (1991), W. Faulkner-en *Hotsa eta Ardaila* (1992) eta P. Highsmithen *Ripleyren jokoa* (1995) eta *Ripley trebea* (1999); frantsesetik, P. Mériméeren *Carmen* (1992); euskaratik gaztelaniara, egilearekin elkarlanean, Bernardo Atxagaren *El hijo del acordeonista* (2004) eta *Siete casas en Francia* (2009).







Euskal emigrazioak utzitako ondare idatzia ikertzea izan zen lan honen lehenengo asmoa, eta helburu horrekin eman nituen lehenengo urratsak, Mexikoko idazkietatik Patagoniako edo Australiakoetara pasatuz, dokumentu berrietatik zaharretara. Laster jabetu nintzen, ordea, hain garai eta errealitate desberdinak hartuko zituen lana orokorregia izango zela ezinbestean, eta esparrua murriztu beharra neukala gaiaren oso azalean geratu nahi ez banuen. Handik aurrerakoa halabeharrak erabaki zuen. Renoko unibertsitatean nengoen, hango liburutegiko bulego batean, beheko hiru solairutan Mendebalde Urrunari buruzko edozein liburu kontsulta nezakeela, eta, hori baino inportanteagoa, goiko solairuan *Center for Basque Studies*eko liburutegi eta artxibo bikainak eskueran nituela. Horixe izen zen *Far Westeko Euskal Herria*ren abiapuntua. Izenari dagokionez, XIX. mendearen bukaeran Los Angelesen argitaratu zen *California´ko Eskual-Herria*ren omenez hautatu nuen.

Nevadan egin nituen hilabeteetan, ahalik eta materialik hoberena jasotzea izan zen nire ardura nagusia. Esperientziatik idatzitako testuak eta erretoriko hutsak bereiztea esan nahi zuen horrek; bitxikeriak baztertzea eta testigantza esanguratsuak hautatzea; historiaren subjektu guztiak aintzat hartzea, gizonezkoak zein emakumezkoak, artzainak zein beste edozein lanbidetan jardundako jendea. Azken puntuari zegokionez, ordea, amore eman beharra zegoen corpusaren aurrean: Mendebalde Urruneko literatura gehiena gizonezkoei buruzkoa da eta, euskaldunez ari garela, artzainei buruzkoa.

Era askotako testuak jaso nituen hilabete haietan. Euskarazkoen artean, gehienak bertsoak edo prentsako artikuluak ziren, azken hauek *California´ko Eskual-Herria*tik edota *Eskualduna*tik hartuak batik bat. Horiek bere hartan uztea erabaki nuen, bakoitza bere garaiko euskaran, estandarrean jarri eta ahots guztiak berdindu gabe. Bestalde, ingelesezkoen artean batzuk egile ezagunenak ziren, hala nola Robert Laxaltenak, baina beste batzuk bitxi bakanagoak: CBSko artxiboetan topatutako gutunak, egunkari-zatiak, txartelak, narrazio pertsonalak... Gogoan izan behar da, azken hauei dagokienez, ohitura bilakatu dela AEBetan, hainbeste jatorritako jendea biltzen duen nazioan, ondorengoentzako narrazio autobiografikoak idaztea eta testigantzaren kopia bat –fotokopia xumeak edo auto edizio txukunagoak– unibertsitatearen baitan uztea. Horri esker ezagutu ditzakegu liburu honetako dokumentu asko, CBSko artxiboko apaletan gordeta zeudenak.

Ordenagailuko karpetetan ehunka testu eta ehunka argazki nituela itzuli nintzen «Europako Euskal Herrira». Hura guztia antolatu eta behar zen bezala aurkeztea zen hurrengo eginkizuna, horrenbeste atalekin narrazio bakar bat osatzea. Horretarako, material guztia kronologikoki antolatu behar nuen, testuak bata besteari lotzea lortu: narratzaile batek itsas bidaia konta zezala, hurrengoak portuko iritsiera, hirugarrenak Winnemucca edo Boiserainoko tren bidaia luzea. Protagonista berri bakoitzak aurrekoak utzitako puntuan jarraitu behar zuen kontakizuna. Atalak horrela josita, testu bilduma hutsaren arriskua uxatu nahi nuen.

Azkenenan lotu ziren pieza guztiak eta narrazio bakarra osatu zuten. Kaliforniako urre aurkikuntzen garaian du hasiera, 1849an, eta bukaera, berriz, handik ehun urte ingurura. Azalpen historikoak beharrezkoak izan dira askotan, batez ere dokumentuak beren testuinguruan kokatzeko; baina funtsean protagonistak berak dira narratzaileak. Hitza txandaka hartuz, beraiek kontatzen dute Far Westeko Euskal Herriaren historia.

Neguan izan zen

Xabier Lete Bergaretxe

Salneurria: 15,00 €
ISBN: 978-84-7681-600-4
Litera & Musika 7
Hizkuntza Euskara
2009. urtea
44 or. + DVDa

Musikak:
Basoilarrak kantatzen dizu
(Herrikoia/egok. Joxan Goikoetxea)
Urtaroak (Udazkena)
(A. Vivaldi)
Errota zaharra
(X. Lete/L. Iriondo / egok. Joxan Goikoetxea)
Rilke lagunduz
(Karlos Gimenez)



***Udazkeneakoak* atalean**

Eguneroko etxean...
Hiria zatikatzen duen ibaia...

Vulnerant omnes atalean

Negua Venezian
Uste izan genuen...
Zenbat aldiz mintzatu ginen...
Itinerarium, Antonio Machadoren bidetik
Ezagutu ditut gerla galduetatik...
Beste leku ez hain urrunekoetan...
Ezin dizuet ezer gehiago eskaini...
Gure aita, zeruetan eta herbestean zarena...

Joan zirenei atalean

Eskaintza, F. L. O. nere aita zenari

Obabako lurraldeari begira atalean

Urtarrileko eguerdi batean...

Neguan izan zen atalean

Azaroko arratsaldean elurra ikusi dut...
Elurtu ote dira elorri xuriak...
Gauez bakarrik dago dena...
Kantu xahar batek...
Zergatik samintzen nauzue hainbeste...
Enparantzetako haur horiek...
Neguan izan zen...
Neguko abenduetan...
Azken hilabete haiek...



Xabier Lete Bergaretxe (Oiartzun, 1944)

1964. urtean hasi zen poesia idazten eta 1966an jendaurrean kantatzen. Ez Dok Amairu taldeko partaide izan zen.

Poesia alorrean, orain arte bost liburu zituen argitaratuak. *Egunetik egunera orduen gurpilean* (Cinsa, 1968), *Bigarren poema liburua* (Gero, 1974), *Urrats desbideratuak* (Gipuzkoa Kutxa Argitalpenak, 1981), *Zentzu antzaldatuen poemategia* (Euskaltzaindia-BBK, 1992) eta *Biziaren ikurrak* (Erein, 1993). Horiez gain, Rilke, *Orduen Liburua*, hogeitamar poemez osatutako disko-liburua (Pamiela, 2004) eta, azkenik, *Abestitzak eta poema kantatuak* (Elkar, 2006).

Egunsentiaren esku izoztuak (Pamiela, 2008) –2009ko Literatur Euskadi Saria– orain arterainoko bere azken poesia liburua da. Bertan azken urteetako bizi-esperientziak gogoetatu ditu, iragan ederrarekiko miresmena, maitasunaren gauzaguneak, xamurtasuna, oinazea, heriotza eta berraurkikuntzaren ametsa elkarri lotuz. Hain segur, Xabier Leteren poesigintzan mugarri den liburua.

Egunsentiaren esku izoztuak

Xabier Lete Bergaretxe

2009 Euskadi Saria



Salneurria: 18,00 €
ISBN: 978-84-7681-572-4
Poesia 16
Hizkuntza Euskara
2008. urtea
206 or.

Gure poeta handienetako baten poema liburu berria. Hamasei urte argitaratu egon gabe, Xabier Letek inoizko poesia bildumarik bereziena osatu du. Bizi esperientzietatik ondu eta idatzitakoa, iragan ederrarekiko miresmena, maitasunaren gauzaguneak, xamurtasuna, oinazea, heriotza eta birraurkikuntzaren ametsa elkarri lotuz. Unibertsal diren sentipen, arrangura eta eremuak, poesiaren gailurrean. Bere goi arnaseko poetika hizkuntza landu eta propioan isuria da eta, era berean ulerterrazean. Mugarri eta erreferente gisa geldituko den liburua.

Neguan izan zen
oinazearen malutek
lurra zuritzen zutenean
eta elurra hilator errukitsu zenean,
orduan joan zinen
hain maiteak zenituen hartxoriekin batera,
mihiseak hotz gelditu ziren
eta etxe bakartian zure aztarrenak
bazter guztietan, horma esankorretan
irrifarre leun haiek
eta bizitza baten argazkiak,
neguan izan zen
eta espanturik gabe aldegin zenuen,
isil, zuzen, jakitun, jabe,
bizi zaitez, esan zenidan
saia gauza ederrak, maitatu jendea
eta ni… ni itxaroten egonen natzaizu.
Zer naiz orain, esaidazu
fereka nazazu
zure leialtasunaren hatz sotilekin,
neguan izan zen
zu aldendu zinenean,
ni ere urrun nago orain
eta bila nabilkizu goizaldeko ordu isiletan
dirudien guztiaren beste aldetik,
neguan izan zen.

Bizi!

Patxi Zabaleta



Salneurria: 16,00 €
ISBN: 978-84-7681-598-4
Poesia 19
Hizkuntza Euskara
2009. urtea
168 or.

Patxi Zabaleta (Leitza, 1947)

Ezkonduta dago eta bi alaba ditu. Zuzenbidean eta filosofian lizentziatua eta 1986tik euskaltzaina. Lanbidez, abokatu eta politikaria da.

Idazle bezala, arlo askotan aritua da Patxi Zabaleta. Literaturari dagokinez, olerki liburu bi argitaratu zituen 1970eko hamarkadan: *Zorion baten zainak* eta *Ezten gorriak*. Beraz, oraingo olerki bilduma hau, Bizi! izenekoa, hirugarren poema liburua da, orain hurrengoarengandik hainbeste urteren burura agertzen dena. Bost nobela dauzka argitaratuta: *Errolanen harria, Ukoreka, Badena dena da, Arian ari* eta *Eneko Aritzaren hilobia*. Nafarroako azken mariskala izeneko liburuak antzerki egitura dauka. Argitaratuak ditu ere ipuin liburu, biografia eta saiakera anitz; bai euskaraz nola espainolez; bai liburu formatoan, nola aldizkari eta eranskin moduan.

Bizi!

Liburu hau ez da olerki aukeratutakoen bilduma hauta, liburu berria baizik, bizirik dirauen olerkariaren fruitu berria, eta hortik izenburuaren egokia. Aberria ala hil ohiko lelo horren ondoan, aberriagatik bizi ohiltzen digu Zabaletak, aldatzeko garaian baikeunden, egokitzeko, berritzeko edo eboluzionatzeko garaia bailitzan. Eta horrelaxe beste behin erakusten zaigu poeta ezin dela aldentzen bere baitatik, eta Gorka Trintxerpe poetaren ondoan Patxi Zabaleta agora gizona badela.

Berriki eginiko poemekin batera aspaldi sortu zirenak ere jasotzen dira, hau da, argia berandu ikusitakoak, tiraderan luze gorderikoak, alegia.

Gaitegi zabala bezain unibertsala digu aurkezten Zabaletak, bere betiko kezken erakusgarri. Maitasuna eta herria, eta hauen ondoan poesia bera ere. Etsipenetik bide datorren baikortasun tonu batez, humanismo klasikoaren jabe zaigu agertzen leitzarra, gizakiaren kezkak, beldurrak eta sentimenduak oragarri. Bigarren Nafarroadari buruz aunitz gauza dio Zabaletak aski argigarri aintzin solasean. Euskal poesia epikoaz egiten duen hausnarketa eztabaidagarrian kokatu nahi du bere lana, eta bere ekoizpen osoa hartuta aisa ikusten da bide horretatik datorkigula.



Aberriaren eta iraultzaren ohiko lelo eta abarrotsak balizko etsairen baten izuaz eraikitako harresi zaharkitu ezkorrak dirade: Aberria ala hil! Iraultza ala hil! Nik, ordea, bizipozari abestu nahi nioke. Etorkizuneko leloek biziaren ereserkia eratu beharko lukete. Izan ere, elkarri kalte eta oinaze jasanezinak eragiteko gai eginen gara eta etsai gaindiezinak ezinezko etsaiak dira. Etsairik ezean, ez da mugarik edo harresirik beharko. Horra zergatik bizipozaren aldarrikapena beharrezkoa bilakatu den. Mundua aldatu duten indarrak ez dira dirua, agintea, armak edo borroka; ez. Mundua galderek aldatu dute; gizakia galderak egiteko kemena duena baita. Globalizazioaren garaian hiru dira denboraren galdera nagusiak: Lurra, gizadia eta etorkizuna. Aberria, iraultza eta bizia.

ABERRIAGATIK BIZI!
IRAULTZAGATIK BIZI!

Aberria ala hil!
gudari ezezagunaren aldareko leloa, horra.
Non ote dira, non ote
bere guraso triste ezezagunak?
Non senide eta maitale ezezagunak?
Non bere asmo eta sentimendu ezkutuak?
Agian, heriotzaren ezkaratzeko
azken hatsean madarikapen bortitza
jaurtiki izanen zion biraoka Ortziari:
Bizi! Aberriagatik bizi!

Aberria ala hil!
espetxeko denbora, burmuinetan arra
Non daude orain, non ote
gudura bultzatu zintuzten haiek?
Non, borroka beste biderik ez dela ziotenak?
Non, besteren lan eta bizkar onura
eskuratuak?
Agian, berak ikusi ezin eta, presoari
arratsero amesten duen ilunabarrak
berpiztu izanen dio biziaren grina:
Bizi! Aberriagatik bizi!

[...]

Erlea 1

Bernardo Atxaga

Salneurria: 12,00 €
ISSN: 1889-7576
Hizkuntza Euskara
2009. urtea
136 or.



Euskaltzaindiaren egitasmoa

Euskaltzaindiaren helburua da euskara zaintzea, indartzea eta aberastea, horretarako baliatuz bai euskal gizarte-eragileen ekimena eta bai erakundeen babesa eta laguntza, guztien lankidetza bilatuz eta guztien ahalegina sustatuz eta gidatuz.
Jakina den bezala, Euskaltzaindiak alor askotan egin du lan, eta zabaldu ere asko zabaldu du bere egitasmoen zerrenda. Gizartearekin harreman gehiago eduki nahi luke Euskaltzaindiak, eta partaide izan, zuzenago eta zabalago, kulturgintzan. Horretarako sortu da erlea, literaturarekin lotutako aldizkaria. Lau hilabetez behin argitaratuko da.
Eragileok 1.700 irakurle lortu nahi ditugu eta hitzaldiak, irakurketak, sariak eta beste hainbat ekitaldi antolatu.

Lenen eta bein, egoitza iraunkorra billatu bear da erleentzat, aizeak io ez dezakena (aizeak bada azkurriak etxeratzea galerazten die), ardi eta auntz ibilkoiak lore artean iauzika ari ez ditezkena, edota zelaian alderrai dabillen bigantxak intza astindu ta belar erne-berriak zapaldu ez ditzakena. Erlategitik urruti beude musker bizkar ezkatatsuak, erleiale ta bestelako egaztiak, batez ere Prokne (enara) bere atzapar odoltsuz bularra markatuta daukana, dana ondatzen baitute mokoekin egan dabiltzan erleak arrapatuz beren kabi asekaitzetara iaki atsegin au eramateko. Bego, ala ere (erlategia) iturri gardenez eta goroldio orlegiz inguratutako urmaelez iantzia ta ur-txirripak soropilletan barrena dituela, palmondo edo oliondo aundiaren itzalpean [...]
(Virgilio. «Laugarren alor-kanta». Andima Ibiñagabeitiaren itzulpenetik)





erlea ~ 1

1.700en aldizkaria

2. argitaraldia

WWW.PAMIELA.COM 11



Erlea literatura aldizkariaren estreinako alea plazaratu du Euskaltzaindiak, Bernardo Atxagaren zuzendaritzapean.

Nevadan (AEB) egindako egonaldian, Euskaltzaindiarekin elkarlanean sortu asmo zuen aldizkariaren proiektua zuen gogoan, besteak beste, Bernardo Atxagak. Borders liburu dendan, igande arrats asko igaro zituen «kafe eta txokolate artean», mundu osoko literatur aldizkariak ikusmiratzen. Agerkari berriak zer-nolako egitura izango zuen, zer-nolako atalak, zer-nolako itxura...

Hiru urte eta erdi igaro dira Bernardo Atxaga euskaltzain oso izendatu zutenetik. Euskaltzaindiak gizarteratzeko eta eraberritzeko zuen asmoari erantzuten zion Atxagaren izendapenak. Hark ere bat egin zuen erronka horrekin, eta hasieratik garbi samar izan zuen euskal kultura Euskaltzaindira erakartzeko eta eite berri bat emateko modu egokiena aldizkari bat sortzea izan zitekeela, literatur aldizkari bat. Denbora horretan guztian egitasmoa osatzen eta taxutzen egon ondoren, plazan da dagoeneko lehen alea. Erlea-k eman du lehen ziztada. Euskaltzain ez ezik, erlezain ere bada jada Atxaga.

136 orrialdeko aldizkaria da lehen ale hori, aldizkaria baino gehiago liburu dirudiena, argazki ederrez hornitua, estetikoki arras zaindua (Txema Aranazen ardurapean), Euskaltzaindiak argitaratua eta Pamiela argitaletxearen laguntza duena eta dagoeneko dendetan salgai dagoena, 12 euroren truke.

Eta Far Westen edo Mendebalde Urrunaren atmosfera duena: «Ale bakoitzak bere atmosfera izango du. Nevadan egindako egonaldiak bertako idazleekin harremanetan jartzeko, euskal-amerikarren berri izateko eta abar balio izan zigun, eta hura baliatu dugu. Mendebalde Urruneko argazki asko dago, azaletik hasita, Mendebalde Urruneko idazleen testuak daude, garai batekoenak eta gaur egunekoak, euskal jatorria dutenenak eta ez dutenenak», esan zuen Atxagak atzo egindako aurkezpenean. Robert Laxalt (1923-2001, Nevada, AEB) euskal jatorriko idazle estatubatuarraren eta haren familiaren ingurukoek leku berezia dute lehen alean.

Estreinakoa AEBetako mendebaldean girotua den bezala bigarrenak Irlandako atmosfera izango duela, hirugarrenak Afrikakoa eta laugarrenak Suediakoa aurreratu du dagoeneko Asteasuko idazleak. Lau-hilabetekaria da Erlea, eta hasiera batean, hamar ale egiteko konpromisoa hartu du Atxagak. Hamar aleko muga Euskaltzaindiak jarri dio idazleari, Andres Urrutia euskaltzainburuak aurkezpenean azaldu zuenez: «Urtean lau ale ateratzean, eta lehena kalean izatean, hiru urte beteko genituzke. Tarte nahikoa iruditzen zaigu, aldizkariak zer ibilbide egin duen aztertzeko».

Hamar aleko iraupena izango du gutxienez agerkariak, baina zenbaki bakoitzak 1.700 aleko argitaraldia izango du, ez gutxiago eta ez gehiago. Eta aldizkariaren izen azpikoak ere hala dio: 1.700en aldizkaria. Zergatik? «1.700 ale atera ditugu eta gogoan 1.700 erosle dauzkagu, kasu honetan lehen irakurle izango direnak. Nire esperientziaren arabera horrek badu zentzu handi bat. 1.700 irakurleren inguruan dabil izan ala ez izan muga. Uste dut, benetan, 1.700 irakurlez osaturiko gunea baldin badago literatura heda dezakeela bere hizkuntzaren barnean. 1.700 irakurlerekin egin genezake euskal literatura deitzen dugun hori. Garai batean, ez oso aspaldi, 17 ziren, gero 0 bat erantsi zitzaion, eta orain, 1.700 gara. Badakit 17.000 ere izan gaitezkeela, baina hori da erronka».

Erlea izenak ere badu bere izateko arrazoia. Izen arrunta nahi zuen Atxagak: «Nik ez nuen nahi, literaturan askotan egin den bezala, inork ulertzen ez duen izen ponpoxo bat aukeratu. Montaignek esaten zuen guretzat baliagarriak diren hitz guztiak gure hiriko azokan aurki zitezkeela. Azokan erabiltzen den hitz bat ona da literaturarentzat. Erlea erabil daiteke azokan».

Aldizkaria egitura trinko baten arabera antolaturik dago. Atxagaren esanetan, «hemengo atal guztiak goitik behera pentsatuta eta antolatuta daude». Mundu osoko literatur aldizkariak aztertu ostean, zenbait ideia atera zituen idazleak. Esaterako, liburuen kritikak edo iruzkinak ez dira ohiko formatuan agertuko aldizkarian, baizik eta elkarrizketa moldean emanak: «Sei-zazpi pertsona ari dira liburuei buruz hizketan, elkarrizketa batean barneraturik egiten dituzte iruzkinak. Hori izango da aldizkari honetako atal kritikoa».

136 orrialdeko aldizkaria da lehen ale hori, aldizkaria baino gehiago liburu dirudiena, argazki ederrez hornitua, estetikoki arras zaindua



Lehen alean, Aritz Galarraga, Mari Jose Olaziregi, Estibalitz Ezkerra, Lourdes Otaegi, Jacinto Iturbe eta Kepa Altonaga aritu dira azkenaldiko liburuei buruz hizketan.

Poemak argitaratzeko orduan ere bereizgarri bat izango du aldizkariak, poema bera eta haren atzeko aldea agertuko baitira hainbat kasutan: «Poetari eskatuko diogu azal dezan nola egin duen poema, zer zirkunstantziatan, zer pentsatuz... poemek beste jite bat hartzen dute, beste indar bat». Koldo Izagirreren Etxe bat, Xabier Leteren Bazoaz bizitzaren bide galduetatik eta Kirmen Uriberen Irrati txikia poemek agertu dute atzeko alde hori lehen alean. Joxean Artzek, aldiz, poema berriak argitaratu ditu; Poema berriak (aspaldiko partez) izenburupean, hain zuzen ere.

Lehen alean parte hartu eta kolaboratu duten izenei erreparatuz, aniztasun aldarea agerikoa da: «Zortzigarren euskal probintzi bat nahi nukeela esatea gehiegi litzateke, baina nahi nuke leku bat izatea pentsaera, adin eta jarrera ezberdineko jende askorentzat. Eta lehen alean, ez dakit nahita edo zortea izan dugun, baina lortu dugula uste dut», adierazi zuen Atxagak harrotasunez.

Elkarrizketak ere molde berezian emanak izango dira. Guztiek protokolo bati jarraituko diote: «Elkarrizketatua izango den pertsonaiari bere bizitzako hamar objektu aukeratzeko eskatuko zaio aurrena, eta handik pare bat hilabetera objektu horien inguruan egingo zaio elkarrizketa». Lehen alean Mikel Laboari eskatu zion Atxagak aukera egin zezan, eta Laboak egin zuen hautaketa. Elkarrizketa egin aurretik hil zenez, haren emazte Marisol Bastidak hitz egin du objektu horiei buruz: «Mikel Laboaren beste soslaia bat, beste Laboa bat, jende askok uste ez duen bezalakoa ageri da hor», Atxagaren hitzetan.

Aldizkari profesionala

Aurrez beste literatur aldizkari batzuetan aritutakoa da Atxaga -Garziarena izenekoan, esaterako-, baina aurrenekoz hartu du aldizkari profesional baten ardura: «Horrek esan nahi du lanak ordaindu egiten direla. Ordaintzen da, gainera, AEBetako eta munduko literatur aldizkarietan ordaintzen denaren arabera. Horrek esan nahi du ordaintzen duenak eskubide batzuk dituela. Testu bat bidaltzen dutenek badakite edizio lan bat egongo dela. Harreman profesional bat egongo da, edo horren nahia dago». Atxagak Euskaltzaindiaren babesa bereziki eskertu nahi izan du. «Lehen aldia da norbaitek nire egitasmoa hasi eta buka aintzat hartu duena, eta bene-benetan diot».

Euskaraz idatzitako testuak eta itzulpenak ditu lehen aleak, eta ondorengo zenbakiek ere hala izango dituzte. Jatorrian euskaraz idatzitakoak hamarretik zazpi izango dira, eta hamarretik hiru, berriz, itzulpenak. Proportzio horri eusteko arrazoiak garbi ditu Atxagak: «Edo zentro bat sortzen duzu zure kulturaren inguruan edo periferia bihurtzen zara, eta mundua periferiaz beterik dago. Zentro izatea ona da, sorkuntza bultzatzen duelako, eta gizarteari bizitza ematen diolako».

Gorka Erostarbe. BERRIA

'Erlea'-ren lehen aleko kolaboratzaileak

Karlos Linazasoro. Berrogei aforismo errugabe idatzi ditu.

Joxemari Iturralde. Kultur kronika izeneko atala idatzi du .

Justin Webster. Idazle ingelesak Kasu zeure mintzairari / Aita-hizkuntza izeneko testua idatzi du.

Xabier Kintana. Euskara ikastearen oroitzapenak.

Mariasun Landa. Maite-zokoetan testuaren egilea.

Koldo Izagirre. Etxe bat poemaren atzeko aldea erakutsi du.

Asun Garikano. Far Westeko Euskal Herria izeneko atala atondu du.

Gabriel Urza Laxalt. Hainbat objekturen eta haien jabeen zerrenda laburra izenekoa idatzi du.

Monique Laxalt. Euskal Herriari gutuna idatzi du. Renon (Nevada) jaio eta hazi zen. Aurrekoaren ama.

Estibalitz Ezkerra. Robert Laxalten Sweet Promised Land testua idatzi du.

Mari Jose Olaziregi. Robert Laxalten Sweet Promised Land testua idatzi du.

Gloria Totoricaguena. Bai, gogoan zaituztegu testua idatzi du, Gernikatik joandako emigranteen alabak.

Frank Bergon. Nire amama euskalduna testua idatzi du Nevadako idazleak.

Frances Beckner Thompson. Idazle estatubatuar zenaren Aukera guztiak kontra testua biltzen du lehen aleak.

Miel Anjel Elustondo. 'Mr Basque' naiz izenekoa idatzi du.

Joxean Artze. Poema berriak (aspaldiko partez) idatzi ditu.

Aurelia Arkotxa. Vallis Clausa izeneko testua idatzi du.

Xabier Lete. Bazoaz bizitzaren bide galduetatik poemaren atzeko aldea erakutsi du.

Toño Muro. Pablo Antoñanari buruzko testua.

Anjel Lertxundi. Lorpenak eta desafioak gogoeta idatzi du.

Andres Urrutia. Ex fabulae gogoeta idatzi du.

Harkaitz Cano. Disoluzioaren poetika idatzi du.

Irati Elorrieta. Zirrikituak testuaren egilea.

Kirmen Uribe. Irrati txikia poemaren atzeko aldea erakutsi du.

Ania Miner. Argia, bizitzaren iluntasunean idatzi du.

'Urrezko liburutegia'. Etxean eduki beharreko liburuak hautatu dituzte Jon Aranok, Iban Zalduak, Lourdes Otaegik, Victor Morenok, Joxemari Iturraldek eta Mikel Asurmendik.

'Azkenaldiko liburuak'. Aritz Galarraga, Mari Jose Olaziregi, Estibalitz Ezkerra, Lourdes Otaegi, Jacinto Iturbe eta Kepa Altonaga aritu dira.

Siete poetas vascos

Luigi Anselmi • Bernardo Atxaga
Jon Gerediaga • Tere Irastortza • Xabier Lete
Xabier Montoia • Joseba Sarrionandia



Luigi Anselmi

Precio: 18,00 €
ISBN: 978-84-7681-588-5
Poesia 17
Edición bilingüe Español-Euskera
Año 2009
162 páginas



Bernardo Atxaga



Jon Gerediaga



Tere Irastortza



Xabier Lete

La presente antología incluye una selección de poemas de Luigi Anselmi, Bernardo Atxaga, Jon Gerediaga, Tere Irastortza, Xabier Lete, Xabier Montoia y Joseba Sarrionandia, destacados y significativos poetas en el campo de la lírica vasca actual. El nexo que les une para aparecer conjuntamente en esta antología es el haber publicado parte importante de su obra en Pamiela, ya que, por lo demás, son de estilos, trayectorias y edades diferentes.

Se incluyen seis poemas por autor (original y traducción), escogidos por ellos mismos, con el objetivo de dar noticia cualificada de sus poéticas y despertar el interés por conocerlas mejor –por extensión, la poesía vasca en general– a gentes que la desconocen y quisieran acercarse a ella, tanto dentro del País como en otras latitudes; paso importante y necesario, más en situaciones diglósicas y en el contexto de globalización actual, cara a la preservación y enriquecimiento de la biodiversidad cultural. Otro objetivo, por fin, es el de ofrecer nuevos horizontes y públicos a los poetas y sus creaciones.



Xabier Montoia



Joseba Sarrionandia

Siete poetas vascos



Luigi Anselmi • Bernardo Atxaga
Jon Gerediaga • Tere Irastortza • Xabier Lete
Xabier Montoia • Joseba Sarrionandia

PAMIELA

Zazpi etxe Frantzian

Bernardo Atxaga



Salneurria: 19,50 €
ISBN: 978-84-7681-583-0
Kondagintza 15
Hizkuntza Euskara
2009. urtea
252 or.



«Chrysostome Liègek 1903ko hasieran sinatu zuen Leopoldo erregearen Force Publiquen zerbitzatzeko kontratua, eta urte bereko abuztuan iritsi zen Afrikako bihotzera. Pakebote batek eraman zuen Anberesetik Matadira; trenak, Leopoldvillera; bapore ertain batek, Princesse Clementinek, Yangambiko postu militarrera. Ez zen munduko azken-azken lekua, zeren, Force Publiquen askotan entzuten zenez, ohore hori Kisanganiri zegokion, ibaian berrehun kilometro gorago zegoen postuari; nolanahi ere, oso urrun zegoen edozein leku ezagunetatik...»

Holaxe hasten da Bernardo Atxagaren nobela berria. Eten bat idazlearen ibileran, testu harrigarria alde askotatik.

Gaitegi zabala bezain unibertsala digu aurkezten Zabaletak, bere betiko kezken erakusgarri. Maitasuna eta herria, eta hauen ondoan poesia bera ere. Etsipenetik bide datorren baikortasun tonu batez, humanismo klasikoaren jabe zaigu agertzen leitzarra, gizakiaren kezkak, beldurrak eta sentimenduak oragarri. Bigarren Nafarroadari buruz aunitz gauza dio Zabaletak aski argigarri aintzin solasean. Euskal poesia epikoaz egiten duen hausnarketa eztabaidagarrian kokatu nahi du bere lana, eta bere ekoizpen osoa hartuta aisa ikusten da bide horretatik datorkigula.

Bernardo Atxaga Asteasu 1951

Ekonomia ikasketak egin zituen Bilbon, eta Filosofiakoak Bartzelonan. Bere lehen lan literarioak Euskal literatura 72 antologian argitaratu zituen 1972an. Geroztik lan asko argitaratu ditu. Garrantzitsuenak hauek:

Ziutateaz (Lur, 1976); *Etiopia* (Pott liburutegia, 1978); *Henry Bengoa, Inventarium* (Emak bakia baita / Elkar, 1986); *Obabakoak* (Erein, 1989); *Behi euskaldun baten memoriak* (Pamiela, 1991); *Gizona bere bakardadean* (Pamiela, 1993); *Zeru horiek* (Erein, 1995); *Sara izeneko gizona* (Pamiela, 1996); *Groenlandiako lekzioak* (Erein, 1998); *Hitz beste eginez* (Pamiela, 2000); *Soinujolearen semea* (Pamiela, 2003); *Lekuak* (Pamiela, 2005); *Markak. Gernika 1937* (Pamiela, 2007).

Bernardo Atxagaren lanak hizkuntza askotara itzulita daude.



Bernardo Atxaga

Zazpi etxe Frantzian



PAMIELA



XX. mendearen hasierako Kongo belgikarrean kokatu du Atxagak azken eleberria. Yangambi oihaneko postu militarrean bizi dira Chrysostome, Lalande Biran eta beste zenbait pertsonaia, Leopoldo II.a erregearentzat lan egiten dutenak. Bistan da idazleak 180 graduko bira eman duela.

Bernardo Atxaga (Asteasu, 1951) bere bakardadean egon zen Nevadan bizi izan zen urtebetean eta, egonaldi horri esker, bere ibilbideko urrats berri eta garran-tzitsua eman du. Emaitza Zazpi etxe Frantzian eleberria da, Pamiela argitaletxeak kaleratua. Apirilean, gainera, gaztelaniazko itzulpena plazaratuko du Alfaguarak, galegoz eta katalanez argitaratzearekin batera.

Noiz erabaki zenuen Obabatik aldentzea?

Egia esan, Obabakoak idatzi nuen garaian bezala gertatu zait. Camilo Lizardi argitaratu arte ez nuen Obabako metafora, geografia edo giro orokor hori sortu. Halako batean, karpeta batean neuzkan testuak Obabarekin hasi ziren erlaziona-tzen. Eta Zazpi etxe Frantzian modu berean etorritako beste hasiera bat da. Umorearekin lotutako hainbat testu nituen, Lezio berri bat Ostrukari buruz , zenbait poema, aldizkarietan kaleratutako idazkiak... Eta Nevadara joan nintzenerako oso garbi ikusi nuen Obabarena mundu itxia zela niretzako.

Berehala jakin zenuen?

Nork sentitu egiten du hori. Cernudak esaten zuenez, "zein gutxi dakien maitaleak maitasunaz maitasuna joan denean". Halaxe da. Bat-batean konturatu nintzen mundu horretan ez nengoela, hori bukatu dela, jada esanahi poetikorik ez duela. Barneko irudipena da, baina oso sendoa. Eta zaila da barruak agin- tzen ez duenean hor jarraitzea.

Eta Kongo belgikarrera joan zinen. Zergatik?

Ni Obaba berri baten bila nenbilen, Obabaren ordezko baten bila. Halako geografia bat, leku isolatu bat aurkitu nahi nuen eta jakin banekien leku horretan gertatuko zenak militarrekin zerikusia izango zuela. Gero egunkariak eta aldizkariak hartu eta esaldi ustelak azpimarratzen hasi nintzen. Banekien leku berri horretan ez zutela hitz egingo Bibliaren antzeko lengoaiarekin, nekazarien lengoaia eta hizkera usteldu horrekin baizik. Pentsatzen hasi nintzen Amazonian kokatuko ote nuen eta halako batean gogoratu nuen Mark Twainek ida- tzi zuela Leopoldo II.a Belgikako erregea kriminal izugarria zela. Kongon egindako sarraskiaren aurkako testu haiek berreskuratu nituen eta hortik abiatu nintzen. Kongoa neukan, erregea, Afrikako leku isolatua... Handik atera zen nobela.

'Heart of Darkness' Joseph Conraden liburua ez duzu aintzat hartu?

Leopoldo eta Kongoko sarraskia modu askotan zabaldu zen mundura. Mark Twainek eta Arthur Conan Doylek, esate baterako, denuntziatu egin zuten, baina munduan barrena gelditu dena Conraden nobelatxoa da. Ni oso urrun sentitzen naiz estetika eta ikuspuntu horretatik, horrorea modu historikoan tratatzea ez zaidalako gustatzen. Ni erosoago sentitzen naiz beste literatura batean, ez hain historikoa, utopikoaren aurkakoa baizik... Jonathan Swiften Gulliver's Travels edo Saki eta Ambrose Bierce egileen umorearengandik gertuago sentitzen naiz.

Baina Conraden nobelan Kurtz pertsonaiak aipatzen zuen "horrorea" nabaria da zurean ere...

Kongon gertatutako masakrea txostenetan eta argazkietan agertu zen, horrorezko mundu bat izan zen. Deigarria egiten zaidana hauxe da, guk europarrok garai horri belle epoque deitzen geniola eta gaur egun Bruselan garai horiek gogoratzen dituzten hiribideak eta monumentuak daudela, handik ateratako aberastasun guztiekin... Twainen eta Conan Doyleren salaketak, berriz, erabat ahaztuta daude. Gaur egun, alabaina, ez zeukan zentzurik Twainen denuntziaren erreplika bat egiteak, eta parodiaren alde egin nuen, umorea edo komikotasuna egoera desesperagarri eta krudelei buruz hitz egiteko modurik egiatiena baita.

Umorea asko aipatu duzu, baina nobelan gertatzen dena benetan krudela da.

Bai. Kasu honetan distortsio bezala erabili dut umorea, gauzak hobeto ikusi ahal izateko. Komikotasunaren elementu asko erabili ditut, parodia eta txiste errazak, kasu. Eta batzuetan ez da barre egiteko umorea, nolabaiteko distantzia hartzeko baizik. Litekeena da termino zehatzena "komikotasun beltza" izatea.

Lalande Biran Yangambiko kapitainak neskatila bat bortxatzen du ostegunero eta talentu handiko poeta da.

Mundua bitasunez beteta dago eta gehienak ez dira egiazkoak. Bitasun horietako bat militarraren eta poetaren artekoa da, eta Espainian horren adierazle izan ziren Unamuno eta Millan-Astray. Gogoangarria da biek Salamancako Unibertsitatean 1936. urtean izan zuten enfrentamendua. Nire ustez, Millan-Astray ez zen militar trakets, baldar eta ergela, oso ondo idazten zuen familia kultu bateko intelektuala baizik. Eta areago esango dut: poeta bat zen. Unamunoren aurrean "¡Viva la muerte!" bota zuen oihu hori bere osotasunean irakurriz gero, benetan esaldi kontzeptista da, esaldi barrokoa, asko irakurri duen norbaitena. Gizon hura japoniarren samurai kodea espainolera itzuli zuen pertsonaia fina zen, eta legioa sortu zuen samurai kodearen arabera. Pentsa- tzen aritu naiz krimena eta poesia oso hurbil ibili direla aspaldi honetan. Eta Millan-Astrayren kontu hori gogoan izan nuen oso Lalande Biran pertsonaia sortzeko garaian.



Zaila izan zen bere larruan sartzea?

Bai, arriskurik handiena nire sadismoa pertsonaian proiektatzea zen. Biran, gainera, egiazko militar batean oinarrituta dago. Lagun batek kontatu zion nire aitari Marokoko Sifi Ifnin zegoenean ofizial baten laguntzailea zela eta astero eraman behar ziola neska birjin bat. Bortxatu ondoren, militar hark amodiozko gutuna idazten zion emazteari. Oso krudela bada ere, ezin nuen Biran poeta kaskar gisa deskribatu. Horregatik bere poema ahalik eta ondoen idazten saiatu naiz. Hori zor nion pertsonaiari.

Bestetik, Euskal Herriari buruzko aipamen bakarra dago, istorioan garrantzi handirik ez duen Biarri-tzeko argazki batekoa.

Ziur asko, nobela honetan eta etorkizunean etorriko direnetan gaia ez da Euskal Herria izango. Euskal Herria bizitokia izango da niretzat eta nire ardurak izango ditut hemen, baina literaturan ez daukat Euskal Herrira itzultzeko batere asmorik.

Agortu al da mundu hori?

Ez naiz oso erlijiosoa, baina gero eta budistagoa naizela uste dut. Budistek esaten dutenez, hitz egin behar da baina halako batean isiltzea garrantzitsua ere bada. Esan behar nuen guztia esana daukat. Nire barruak ez du gehiago ematen. Gogoratzen dut Obabakoak idatzi nuenean oso indartsu atera nintzela, baina pixkanaka-pixkanaka energia hori ahultzen joan da eta azkeneko energiarekin Soinujolearen semea idatzi nuen. Eta bukatu da. Orain dela hamar urte nahiago nukeen pausoa eman, baina aldaketa horiek denbora behar dute.

Uste al duzu ohiko irakurleei arraroa egingo zaiela Euskal Herriaren inguruko erreferentziarik ez topatzea?

Horrek harritu nau... Irakurri duen batzuek esan didate espero zutela bat-batean Euskal Herriko misiolariren bat iritsiko zela Kongora... Ez zait burutik pasa baina egia da irakurle askok Obaba agertzea espero dutela... Harritu? Harrituko dira. Jendeak ezustekoa hartuko du, ona litzateke hori. Irakurlea joango da testuan barrena. Liburuaren indarra, hain zuzen, hauxe da, bat-batean zalantzak sortzen dituela.

Mugatu beharko bazenu, zein izango litzateke nobelaren gai nagusia?

(Pentsakor) "Erne, irakurtzen ari zaren bitartean gauza asko gertatzen ari dira". Hori da esan nahi dudana. Tranpa bat izango litzateke zerbaiten alegoria dela esatea. Beste lema bat izan daiteke: "Liburu honen orrialde bakoitzak bi intentzio dauzka".

Juan G. Andrés
Noticias de Gipuzkoa

"Etorkizuneko liburuetan ez daukat Euskal Herrira itzultzeko batere asmorik"



Denbora enaren hegaletan

Karmele Igartua

Salneurria: 14,00 €
ISBN: 978-84-7681-597-7
Poesia 18
Hizkuntza Euskara
2009. urtea
92 or.

Denboran gelditu
eta gelditu denbora
eta gu ibili denboran
eta guk zeharkatu denbora –enara beltzak bezala–
eta guk egin denboretan denbora,

denborak zahartu, ihartu, baztertu, irentsi ez gaitzan,

denborak inoratu ez gaitzan...





Karmele Igartua Bengoa (Aretxabaleta, 1959)



Atxabaltarra eta Aretxabaletako Kurtzebarri Eskolan irakaslea.

Eskolan hasi zen antzerki lanak sortzen, eta 2000. urtetik hona hiru obra sortu ditu, ikasleek taularatzeko pentsatuak. Horietako bat, *Iruzurra*, irakasle talde batek ere taularatu zuen.

Mariasun Landaren narrazio lan at antzerkirako egokitu du.

Horrekin batera, izan dira prosazko lanak ere orain arteko ibilbidean, *Mugalari edo Administrazioa Euskaraz* argitaratu ditu bere idazlanak. Honez gain, zenbait euskal idazleren obren iruzkinak *L.Luma* berrien eleak aldizkarian argitaratu ditu. Baina, denarekin, azken urteetan, gehien irakurri eta idatzi duen generoa poesia izan da, *L.Luma berrien eleak* argitaratutakoak hauek ere.

2008an argitaratu zuen bere lehenengo poesia liburua Hitzak orbainetan, Euskaltzaindia eta BBKren eskutik, FELIPE ARRESE BEITIA Olerki saria irabazi ondoren.

2009ko udaran Marina Tsvietàieva poeta errusiarraren biografia eta haren Wilnoko gutunak gutun-liburuaren itzulpena argitaratu ditu EGAN literatur "boletinaren" LXII. alean.

Puntan punta bat

Xabier Etxaniz Erle

Salneurria: 14,00 €
ISBN: 978-84-7681-596-0
Azala: Luis Martorell
Haur Literatura 13
Hizkuntza Euskara
2009. urtea
160 or.



Xabier Etxaniz Erle (Oñati, 1961)

EHUko irakaslea Gasteizko Irakasleen Unibertsitate Eskolan eta LIJMI ikerketa taldeko kidea. Haur eta Gazte Literaturaren inguruan aritu da lanean hainbat artikulu eta liburu idatziz.

Azken hauen artean aipatzekoak dira Pamiela etxean plazaraturiko, *Haur eta Gazte Literatura* (1997); *Euskal haur eta gazte literaturaren historia* (1997); *Geure ipuinak* (2000) eta *90eko hamarkadako Haur eta Gazte Literatura* (2005); azken hau Manu Lopez Gasenirekin batera.



Andra mondrongo mondrongo
hik ez dun asko emango,
hik emandako diruarekin
ez dinagu asko edango.

Txantxangorria txantxate
Birigarroa alkate,
txepetxa dela bitarte,
zozoa kartzelan sartu dute.

Xirristi mirristi
gerrena plat
olio zopa
kikili salda
urrup, edan edo klik...
Ikimilikiliklik!

Inuxente
txakurraren buztana tente!

Euskaltzaindiaren egitasmoa

Puntan punta bat. Horrela hasten da euskal tradizioan jasotako igarkizun bat, igarkizunek, esaerek, kantek, zotz egiteko formulek eta abarrek osatzen duten tradizio horretako elementua, hain zuzen.

Liburu hau ere punta bat da, tradizio horren puntatxoa, izan ere haurrei zuzendutako bilduma honetan lehena orainera ekarri dugu; euskal folklorea –jakintza, Azkueren hitzetan– gaur egungo gizartera, jolas eta ikas dezakegun.

Haur Folklorearen Bilduma liburuaren ondorengoa da hau. Aurreko hura osatua eta zuzendua, alegia. Baina aurreko hura bezala tresna egokia gure tradizioaz jabetzeko eta jolasteko.

Puntan punta bat, atzean zulo bat. Zer da?Eragileok 1.700 irakurle lortu nahi ditugu eta hitzaldiak, irakurketak, sariak eta beste hainbat ekitaldi antolatu.

XABIER ETXANIZ ERLE



PUNTAN PUNTA BAT

(HAUR FOLKLOREAREN BILDUMA)

PAMIELA etxea

Amets handi bat

Felipe Ugalde



Salneurria: 14,00 €
ISBN: 978-84-7681-595-3
Itzulpena: Fernando Rey
Tamaina Handia
Hizkuntza Euskara
2009. urtea
40 or. koloreetan

Pamiela · kalandraka



Bazen behin ñañarro bat amets handiak zituena, irrikan zegoen hazteko, handia izateko, norbait izateko, ez pasatzeko... inoren oharkabean.

Album irudidunentzako II. Compostela Saria irabazi duen lana balio literario handiko kontakizun laburlaburra da, irakurlea maien mitologiaren eta astronomiaren mundu liluragarrira daramana. Felipe Ugalde mexikarrak krokodilo baten istorioa kontatzen digu: krokodiloak handitzea du ametsa, denboraz eta espazioak gaindi ere handitu nahi du, munduan duen bizitzatik haratago ere. Giza espeziearen eta gizabanakoaren metefora bat da, gehien-gehienetan hazi eta bizitzan geure arrastoa utzi nahi baitugu. Krokodiloaren gisara, zerbait handia egitera deituak gaude, baina ez dakigu zertara eta nola lortu, eta bide horretan gure inguruko guztia suntsitzen dugu.

Astronomo maiek suge baten moduan irudikatzen zuten Esne Bidea; irudi hori bilakatuz joan zen, krokodiloaren antza zuen kanoa bihurtu arte. Orion konstelazioari loturik, animalia hau munduaren eta zeruaren arteko loturaren ikurra da, gizon-emakumeen eta jainkoen arteko loturarena. Esne Bidea, bestalde, oso lotua dago Done Jakue Bidearekin, bide-erakusle baitzen Compostelara zihoazen erromesentzat.

Indar eta aberastasun sinbolikoagatik, eta margo akrilikoarekin lortutako perfekzioagatik, Amets handi bat izan da sariaren irabazlea, 22 herritaldetako 280 lanen gainetik. Felipe Ugalderen lana “osoena eta orekatuena” zela esan zuen epaimahaiak, testuak eta irudiak elkar osatzen dutelako, irudien balio metaforikoagatik, eta denboraren kontzeptuaren tratamenduagatik. Liburu honetarako, epaimahaiaren iritziz, “berdin da adina, irakurketa desbedinak izan bailitzake”, irakurlea haurra izan edo heldua izan.



Felipe Ugalde (Mexico, 1962)

Komunikazio Grafikoa ikasi zuen Mexikon (INAMeko Arte Plastikoen Eskola Nazionalean). Bertantxe, Irudigintzako irakaslea izan zen. Bere ibilbide artistikoan, zenbait sari jaso ditu. Hainbat erakusketatan hartu du parte, eta plastikako lantegien arduraduna izaten da. Irudigile aritzen da haurrentzako album, testu-liburu eta material didaktikoetarako 20 urte daramatza horretan. Mexiko Hirian album irudidunen lantegi batean parte hartutakoan sortu zuen Amets handi bat –Album irudinentzako II. Compostela Saria irabazi duen lana– ipuinaren istorioa.







AMETS HANDI BAT
Felipe Ugaldo

36 or. | 27 x 21 cm | Salneurria **13 €**
ISBN: 978-84-7681-595-1

Buzoa bihia dakarre bat, amets handiak zituena,
ireikan zegoen bazioko, handia izateko,
norbait izateko, ez pasatuko... inoren oharkabean.

Album bradidatuen Nazioarteko II. Compostela Saria irabazi duen lana ikusgarritasun handiko mikroestruktura da, teknikoki zoragarria, eta haren mezua adin guztietako pentsatzeaz da egokia.

Papur-sufia batean izar fosforeszentzak dira, legokio zabalean konstelazioak igitaio.

ZIRKUA AMETS
Jesus Ormaetxea / Iraia Okina

36 or. | 21 x 29,7 cm | Salneurria **14 €**
ISBN: 978-84-7681-520-4



Aupalditik ari zituzaten amona eszten egun
batean zirkua ikusiera eramango zindutela.
Eta ateo zenutelakoan, panpo gainetik jose
ginen amona eta biok trze gelditzu.
Urdu urdiko bidaia gozoakan hirilburura.
Eta hurlburuan, hantxan, zirkua!

Bidaia bikaina, egiaiduna eta tradizioaren bidezkoa. Inoreko bidaia, urrezkoa ere posible den maudaria. Irudiko bidaia, guzti mundiara. Inoa gozoki ere amets egiteko libura hau.

HURBIL
Natalia Colombo

36 or. | 20 x 20 cm | Salneurria **12 €**
ISBN: 978-84-7681-564-9



I. Compostela Sariarekin lan irabazlek plazo-arteruda asi-surtu da bai marinoan bai asaleran. Guzu garaiko teknomarkatuaren barruako alegia bai da, perbertsi eta atsoinei barrualko gogora jomiko bat.

II PREMIO IVELLE PRIZE
HAUR/BENTZAKO LITERATURA, ITALIAC-2009
IRAKURRITARON PLAN NAZIONALA (PNL Portugal)

AMELIAK TXAKUR BAT NAHI DU
Tim Bowley / André Neves

36 or. | 22 x 22 cm | Salneurria **13 €**
ISBN: 978-84-7681-565-6



Ameliaren nahia sekulen, haren argitasuna balatuz. Amaiia-ene argia da, eserta, serena, kalabaz emoziuak adituta. Ita al dugu ezinezkoa eskatzea haien estrategia hobeak? Madarra hiruak amonentzako ideal egiten lagunduko.

GERLARI HANDIA
Pello Añorga / Jokin Mitxelena

36 or. | 21 x 29,7 cm | Salneurria **13 €**
ISBN: 978-84-7681-555-9



Zaldiaren gainean zihoan Gerlari Handia,
trenta askarrean,
eta bat-batean ekerra hasi zen,
eta jentzi zuri eta lodi batez estali zuen dena.
Urrutiko leku bakarti batean, baina,
ilunzalo ilunu bera atorpeik ez zegoen.
Hala, bada, Gerlari Handia zaldiztik jaitsi...

I. ETXEPARE SARIA (HAUR/BENTZAKO LITERATURA EUSKARAZ). Irugarrenez gizonezik –aurrekoa eta alboarekin– zagozi zioen gerrian–, inoren bainu protagonista etsai zeiba batzu bila hasteko. Etxeak Sabeak gabe ezzaiko du, ez armarik ez armadurarik.

TXERRITXO
Arnold Lobel

72 or. | 15 x 21,5 cm | Salneurria **15 €**
ISBN: 978-84-7681-595-9



Txerritxo basoetako txerriagatz bizi da. Txerritxok airegin du jatea, eta airegin du txerriagatz. Sarrera berriko egitea, eta airegin du lo egitea. Baina Txerritxok gehiee airegin duena entzuna eta irikatz ez bigarrean mozgilotea da.

MUNDUKO ETXERIK HANDIENA
Leo Lionni

36 or. | 22 x 27,5 cm | Salneurria **13 €**
ISBN: 978-84-7681-562-0



Barrankilo batzuk asa gero batean bizi ziren. Etxeak gainean neurketa, polliki aregitzen zioen bainu batetik bestera jaioko merkado bigun batera bila. Egun batean barrankilo txiki batek etxea zioen ateari.

"Handiteon nuiseneon munduko etxerik handiena edoki nahi dut". "Hori tontakeria galanta da", eranzuen zion ahuk, baina bultzen barrankilorik jakinmenea aza batten.

TXIMELETA-BILARRIAK
Luisa Aguilar / André Neves

32 or. | 22 x 22 cm | Salneurria **13 €**
ISBN: 978-84-7681-502-5



Maddi oroka bezela da, eta ez zaizik ez inork ez da kezkatu bainu arazgarriei buluna kentzeik, amak gaiena eztaun batzu edozein kriskitzeen aurrean azzoen aizeaiezkoei aurreratzeaz, tradizioa eta naturalitatea.

IRAKURRITARON PLAN NAZIONALA (PNL Portugal)

Pamiela
ETXEA

Egoitzaharrean: udaberrikalea ✦ 9, Lakua, B-6 tokiua ✦ 01013 - **Iruñea**
Tel.: 945 22 61 35 ✦ **Faxa:** 945 23 06 92
Posta-e: editorial@pamiela.com
www.pamiela.com

Txerritxo

Arnold Lobel



Salneurria: 15,00 €
ISBN: 978-84-7681-593-9
Tamaina Handia
Hizkuntza Euskara
2009. urtea
Azal gogorra
72 or. koloreetan



Pamiela · kalandraka

Itzulpena: Manu Lopez Gaseni

Hiri handi bateko espaloian zimendatuta amaitzen duen txerritxoaren istorio hau Arnold Lobel Sagu kontuak eta Sagu zopa Kalandrakako titulu kutun, samur eta ederren egilearen irudimenetik sortua da. Lobelen obraren ezaugarrien artean, doinu pertsonalak, oinarrizko emozioak eta eguneroko girotzeak aurki daitezke. Hortik datorkio literatur estiloaren laburtasuna, irudikatu nahi duen giza kondizioa bezalako funtsezko hitzetan oinarritua.

Txerritegia garbitzea bezalako ekintza xalo eta aldi berean kontraesankorrak burugabekeria sail oso bat eragin du, eta Txerritxo askatze-operazio konplexu baten protagonista bihurtu du. Txerritxoren zoritxarrak hunkitu egiten gaitu, baina aldi berean irribarrea sorrarazten digu. Irudiek azpimarratu egiten dute umore hori, baserritik hirirako joan-etorriko bidaia ahaztezinean.

Arnold Lobel (Los Angeles, 1933-New York, 1987)

Artea ikasi zuen Pratt Institute delakoan. Hantxe ezagutu zuen emazte izango zuen Anita Kempler ilustratzailea. Publizitate agentzia baterako lanean hasi zen, eta geroago beste egile batzuek idatzitako liburuak ilustratzeari ekin zion. 1962an argitaratu zuen bere lehen liburua, A Zoo for Mister Muster, eta handik urtebetera A Holiday for Mister Muster Idazle eta ilustratzaile gisa irakurleen zein kritikaren txaloak jaso zituen. Jasotako sarien artean, berriz, Caldecott Honour Book, Christopher Award, Caldecott Award eta Newbery Honour Book direlakoak aipa daitezke. Bere ibilbide luzean zehar beste idazle batzuen 70 bat lan ilustratu zituen, eta berak idatzi eta ilustratutako beste hogeita hamar bat argitaratu zituen.



TXERRITXO



Arnold Lobel

Pamiela kalandraka

Navarra. Castillos que defendieron el Reino. Tomo IV

Iñaki Sagredo Garde



Precio: 39,00 €
ISBN: 978-84-7681-599-1
Ganbara nº 13
Idioma Español
Año 2009
306 páginas
650 fotografías e ilustraciones en color

El Reino de Pamplona (810-1173). La Rioja, La Riojilla, La Bureba, Cantabria

En este IV tomo se estudian las tenencias-castillos del reino de Pamplona/reino de Navarra, en las regiones históricas de La Rioja, La Riojilla, La Bureba y Cantabria.

Tras la pérdida de esos territorios, y durante siglos, Navarra intentó infructuosamente de recuperarlos, pero las sucesivas conquistas sufridas en 1054, 1076, 1175, 1199, 1460 y 1512 debilitaron su capacidad para lograrlo.

